

Aitor etxera bueltatu zen eta aita ikusi zuen itxaroten. Aitor aitarengana joan zen eta hitz egiten hasi zen.

- Aitor, non dago dragoia? esan zuen Josek.
- Joan da.
- Zelan joan dela?
- Begira, istorio bat kontatuko dizut, niri eta Sugarri gertatu zaiguna: arrautza aurkitu nuenean...

Aitor istorioa kontatzen hasi zen eta istorioa kontatzen ari zen bitartean Aitorrek orro bat entzun zuen eta dragoiak sua ahotik bota zuen. Orduan su hori Aitorren etxeraino heldu zen eta suak Aitor ukitu baino lehenago Aitor bere ametsetik esnatu zen, baina istorioa ez zen horrela amaitu, txistua eskuan zuela konturatu baitzen.

• • • • •
“Aitor eta sugarren istorioa”

Leire Martín

10 urte – Larrabetzu

2012 – C kategoria

2. saria

• • •